



Lege-proposamena, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea bigarren aldiz aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legea bigarrenez aldatzen duen lege honek duela bederatzi urte sortutako araua indartzen du, bai transexualek edota transgeneroek jasaten dituzten diskriminazio guztiak gainditzen laguntzeko eta aurrera egiteko, bai kolektibo horren berezitasunei erantzuteko.

Legearen jatorrizko onarpenaren eta arauaren edukien bigarren aldaketaren artean tarte labur bat igaro bada ere, denbora horretan, 2019an adierazi zen bezala, gero eta gehiago barneratu da transexualitatearen gaia nazioarteko erakundeek eta adituek emandako agirietan, gomendioetan eta adierazpenetan jasotako agenda politikoetan, eta horien artean nabarmendu behar da transexualitatearen despatologizazioa, arauan duela bi urte egindako lehen aldaketan sartutako gaia.

Aldaketa hau egitea egokia da, gai garrantzitsuak biltzen baititu transexualek edota transgeneroek euskal administrazio publikoengandik arreta integrala eta haien hezkuntza-, osasun-, zuzenbide- eta bestelako beharrezkoak egokitua jasotzeko duten eskubidea erabat bermatzeko, gainerako herritarren baldintza berberetan, bai eta pertsona horien pertzepzio sozial eta instituzionalari modu negatiboan eragiten dioten estereotipoak gainditzen laguntzeko eta neurri zehatzak ezartzeko ere. Gizarte bidezkoagoa, askeagoa, transexualen edota transgeneroen tratu- eta aukera-berdintasunean eta aniztasuna balio gisa onartzean oinarritua lortzeko.



Horregatik, 2012an hasitako eta 2019an jarraitutako bideari balioa emanaz, beharrezkoa da orain Legea aldatzea, transexualen edota transgeneroen eskubideak eta eskubide horiek gauzatzeko garatu beharreko neurriak indartzeko eta sakontzeko.

Horretarako, aldatu egiten dira transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen kapitulu guztiak.

Transgenero terminoa berariaz sartu dela nabarmendu behar da; izan ere, ulertzen da transexual eta transgenero terminoak sinonimo gisa erabil daitezkeela edo ñabardura desberdinak izan ditzaketela. Ñabardura horiek, nolana ere, termino bat edo bestea beretzat erabiltzea erabakitzen duten pertsonen termino horiei buruz egiten duten definizioaren arabera dira.

Era berean, legeak jasotzen du transexual adingabeek eskubidea dutela entzunak izateko eta behar duten babesa eta arreta bermatzeko, beren nortasunaren garapen askea eta garapen integrala sustatzeko, jarduera eraginkorren bidez, haien familia- eta gizarte-integrazioa bermatze aldera, eta, aldi berean, pertsona horiek Euskal Osasun Zerbitzuari dagokionez jaso behar duten arreta sakonago garatzen da.

III. kapituluaren idazketa berriak garapen luzea egiten du bai Osakidetzaren arretari dagokionez, bai pertsona transexualek edota transgeneroek jasotzeko eskubidea duten osasun-prestazioei dagokienez, eta transexualitatea artatzeko unitate espezializatua erregelamendu-mailatik lege-mailara pasatzen da.

IV. kapitulan, bestalde, familia-eremuko neurriak aipatzen dira, familia-aniztasunaren babesa, sexu-identitateagatiko diskriminaziorik eza eta eremu horretan indarkeriaren aurrean laguntzeko eta babesteko neurriak sustatuz.

V. kapitulan, lan-arloko diskriminazioaren aurkako neurrietan sakontzen da. Neurri horiek jatorrizko arauan aurreikusita zeuden, baina garapen zabalagoa behar zuten.



Bestalde, VI. kapituluan, hezkuntza-sisteman transexualitatea tratatzeko neurriak ere hedatzen dira, eskola-eremuan transexualitatea artatzeko protokoloa bat barne hartuta.

VII. kapitulu berri bat sartu da, kulturaren, aisialdiaren eta kirolaren arloko neurriak arautzen dituena, kultura inklusiboa sustatzearen eta kirolean, aisialdian eta denbora librean ekitateari eta sexu-diskriminaziorik gabe parte hartzearen ikuspegitik.

VIII. kapitulu berria segurtasunaren, justiziaren eta larrialdien arloko neurriei buruzkoa da. Hala, besteak beste, ezartzen da, alde batetik, Eusko Jaurlaritzak, bere eskumenen esparruan, zaindu behar duela gorroto-delituen biktima diren transexualei arreta emateko beharrezko neurriak hartzen direla Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Autonomikoan eta Udaltzaingoetan, eta, bestetik, beharrezko neurriak hartzea, transexualen tratu eta egonaldi egokia bermatzeko poliziaren, epaitegien eta askatasunaz gabetzeko beste eremu batzuen bulegoetan.

Azkenik, arauak dituen xedapen gehigarriak aldatzen ditu, transexualiterako lehen mailako arretako zerbitzuak eta transexualitatea artatzeko unitate espezializatua sei hilabeteko epean martxan jartzeko aurreikuspena bame hartuta.



TESTU ARTIKULATUA

Lehenengo artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen IZENBURUA ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

14/2012 LEGEA, EKAINAREN 28KOA, PERTSONA TRANSEXUALEN ETA TRANSGENEROEN SEXU- EDO GENERO-IDENTITATEAGATIK EZ BAZTERTZEARI ETA HAIEN ESKUBIDEAK AITORTZEARI BURUZKOA.

Bigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 1. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

1. Artikulua – Xedea.

Lege honen xedea da pertsona transexualei edo trasgeneroei bermatzea Euskadiko herri-administrazioetatik arreta integrala eta beren beharrian hezkuntzakoak, medikoak, juridiko eta bestelakoetara egokitua jasotzeko eskubidea, gainerako herritarrek jasotzen duten moduan. Gainera, babesa ematea beren askatasuna erabil dezaten, oro har, bizitza sozialeko eremuetan eta, bereziki, zerbitzu publikoetan.

Lege honen xedea izango da, halaber, pertsona horien pertzepzio sozial eta instituzionalean eragin negatiboa duten estereotipoak gainditzeko laguntzea, eta neurri zehatzak ezartzea gizarte bidezkoagoa, askeagoa, transexualen edo transgeneroen tratua eta aukera-berdintasunean oinarritua eta aniztasuna balio erantsi gisa onartzea lortzeko.

Hirugarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 2. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:



2. artikulua. Aplikazio-eremua

Lege hau Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan benetan bizi diren eta, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera, persona transexualak edo transgeneroak diren guztiei aplikatuko zaie.

Eusko Jaurlaritzak, Eusko Legebiltzarrak, foru-aldundiek eta udalek, bai eta erakunde horiei lotutako edo haien mendeko zuzenbide publikoko edo pribatuko edozein erakundek ere, legea betetzen dela bermatuko dute, eta legea betearazteko baldintzak sustatuko dituzte, bakoitzaren eskumenen esparruan.

Laugarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 3. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

3. artikulua. – Pertsona Transexualak eta transgeneroak.

Transexualitatearen nozioak pertsona bat jaiotzean, haren genitalen arabera, sortu zitzaion sexua ez dator bat pertsona horrek sentitzen duen eta dela dakien sexuarekin. Transexualitatea, beraz, pertsonak libreki adierazten duena entzutearen bidez baino ezin da ezagutu, eta, identitate sexuala bezala, ezin da diagnostikatu. Ez da gaixotasun bat, nahasmendu bat edo anomalia bat, giza aniztasunaren zati bat baizik.

Transexual eta transgenero terminoak sinonimo gisa erabil daitezke, edo ñabardura desberdinak izan ditzakete; ñabardura horiek, nolana ere, termino bat edo bestea beretzat erabiltzea erabakitzen duten pertsonen termino horiei buruz egiten duten definizioaren arabera dira. Termino horien definizioak asko eta askotarikoak izanik, nolana ere, jaiotzean beren genitalen arabera egindako gizon edo emakume kategorizazioa baztertzen duten pertsonen buruzkoak dira.



Ondorioz, lege honen ondorioetarako, pertsona transexualtzat edota transgenderotzat hartzeko, sexu- edo genero-identitatearen autodeterminazio askerako eskubidea bete beharko da. Eskubide hori ezin izango da mugatu, zaildu edo baztertu, eta arauak beti interpretatu eta aplikatu beharko dira eskubide hori askatasunez eta osorik baliatzearen alde.

Pertsona transexualek eta transgenderoek lege honetan ezarritakoari heldu ahal izango diote diagnostiko edo txosten psikiatriko, psikologiko edo medikuntza-tratamendurik behar izan gabe, eta hori gauzatzeko baldintza bakarra izango da erregistroko aldaketa eskatu izana edo, horren ordez, dokumentazio administratiboa aldatzeko eskatu izana.

Bosgarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 4. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

4. artikulua. Euskadiko herri-administrazioen trataera

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek beren jardunean eta kasu guztietan aintzat hartuko dute pertsonen zori zaien tratua sexu- eta genero-identitatearen arabera izango dela eta sexu- eta genero-identitate hori egokitzen zaiola bakoitzak bere sentitzen duen sexuari.

2. Pertsona transexual adingabeek entzunak izateko eskubidea dute. Euskal herri-administrazioek transexual adingabeei beren nortasunaren garapen askea eta garapen integrala sustatzeko beharrezko babesa eta arreta bermatuko diete, jarduera eraginkorren bidez, haien familia- eta gizarte-integrazioa bermatzeko, administrazioaren programa koordinatuen esparruan. Euskal herri-administrazioen esku-hartze orok adingabearen interes gorenari arreta emateko eta sufrimendu- eta defentsa-gabeziako egoerak saihesteko irizpide gidaria izan beharko du buru.

3. Adinez nagusi diren pertsona transexualek eta transgenderoek gainerako pertsonen prestazio sozial, sanitario eta soziosanitario berberak jasotzeko eskubidea dute, hau da, beren beharretara egokitutakoak. Transexualak eta transgenderoak adinekoak direnean, gainerakoek bezala, arreta



soziosanitario integrala jasotzeko eskubidea izango dute, autonomia pertsonala eta zahartze aktiboa sustatzeko. Transexualen eta transgenero instituzionalizatuen kasuan, egoitza-zentroko edo erakundeko langileek edo gainerako egoiliarrek identifikatzen dituztenean, haien sexu- edo genero-identitatea errespetatu beharko da, espedientean jasotako izena eta sexua edozein direla ere. Era berean, sexu-identitatearen arabera bereizita dauden espazio eta instalazioetara sartuko dira, gainerako pertsonak bezala.

Seigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 4.bis artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

4 bis artikulua. – Administrazio publikoetako langileen prestakuntza

Euskal Administrazioak sexu- eta genero-identitateari buruzko sentsibilizazio egokia eta jardun egokia bermatuko dituen prestakuntza emango die lege honetan aipatutako eremu guztietan zerbitzuak ematen dituzten administrazio publikoko langileei.

Zazpigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 5. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

5. artikulua. – Transfobiaren aurkako neurriak.

Euskal herri-administrazioek, transexualen edo transgeneroen eskubideen arloan lan egiten duten elkarteekin eta adingabe transexualen familien elkarteekin lehentasunezko lankidetzak izanik:

a) *Euskadin transexualak eta transgeneroak ikusarazten lagunduko dute, kanpainak eta ekintza positiboak babestuz eta eginez, sexu- edo genero-identitatearen arloan aniztasunaren balio positiboa sustatzeko,*



bereziki diskriminazio berezia jasaten duten biztanle-sektoreei erreparatuta.

Bereziki kontuan hartuko dira kolektibo ahulenak: nerabeak, haurrak, gazteak, hirugarren adineko pertsonak, dibertsitate funtzionala duten pertsonak, etab. Pertsona horien izaera transexualaren edo transgeneroaren ondorioz bizitzaren edo ongizatearen aurka egin dezaketen egoerak prebenitzeko lan egingo da. Bereziki, neurri espezifikoak hartuko dira adingabeei, nerabeei eta gazteei, dibertsitate funtzionala duten pertsoneri eta hirugarren adinekoei laguntzeko eta babesteko, baldin eta haien sexu- edo genero-identitateagatik familian edo bizikidetzan presio edo tratu txar psikologikoa jasan badute. Lege honetan adingabeen eta tutoretzapeko pertsonen babesa haien legezko tutoreen edo zaintzaileen bidez gauzatuko da. Adingabeak babesteko atalaren bidez egin ahal izango da bitartekaritza hori, sexu-identitatea ukatzeagatik sufrimendu- eta babesgabetasun-egoerak daudela ikusten denean.

- b) Sistematikoki, politika proaktiboa diseinatu, ezarri eta ebaluatuko dute, transexualek edo transgeneroek behar dituzten laguntzei dagokienez. Politika horrek bideragarria izateko beharrezko tresna eta egiturak izango ditu, eta transbertsala izango da.*

- c) Trebatzeko, sentsibilizatzeko eta bestelako programak garatu eta ezarriko dituzte, sexu- edo genero-identitatearen ondorioz sortzen diren diskriminazio-jarrereri, aurreiritziei eta estereotipo nagusiei aurre egiteko, era horretara lagunduz pertsonak elkar ezagut dezaten, elkarrekin harremana izan dezaten eta euren burua onets dezaten eta era berean sustatuz autoestimua eta duintasuna.*

- d) Sentsibilizazio-kanpainak abiaraziko dituzte herritar guztientzat, sexu- edo genero-identitatearekin loturiko indarkeriaren azpian dauden aurreiritziak desagerrarazteko eta transexualen eta transgeneroen sexu- edo genero-identitatea errespetatu dadin sustatzeko.*

- e) Sexu-aniztasuna eta -identitatea errespetatzen duten adingabeentzako informazio-materialeri eta bestelakoen ekoizpena*



eta zabalkundea sustatuko dute. Bereziki, adingabeei zuzendutako mezuetan komunikabideek berdintasun-, elkartasun-, aniztasun- eta besteekiko errespetu-balioak sustatzen dituztela zainduko dute, eta, era berean, pertsonen arteko harremanetan indarkeria-irudiak, esplotazio-irudiak edo transexualekiko edo transgeneroekiko tratu iraingarri edo sexista edo diskriminatzailea islatzen duten irudiak saihesten dituztela.

- f) Ziurtatuko dute titulartasun publikoko nahiz pribatuko hedabideen ekoizpena eta antolamendua pluralista eta ez baztertzaila izango dela, sexu- eta genero-identitatearekin zerikusia duten gaiei dagokienez.*
- g) Transexualen edo transgeneroen eskubideak sustatu eta babesten dituzten elkarte, talde eta erakundeen aitortza eta kreditatzea babestuko dute.*
- h) Euskadiko unibertsitateetako esparru akademiko guztietan transexualitateari edo transgeneroari buruzko prestakuntza, irakaskuntza eta ikerketa jasotzea eta sustatzea bultzatuko dute, eta lankidetzeta-hitzarmenak egingo dituzte honako xede hauekin:
 - Ikerketa eta sakontze teorikoa sustatzea, transexualen edo transgeneroen sexu- eta genero-identitatea ukatzen duten teoriak eta ideologiak zabal daitezen saihesteko.*
 - Transexualen edo transgeneroen errealitateari buruzko azterlan soziologikoak eta hainbat arlotakoak prestatzea.*
 - Transexualen prestakuntzarako eta enplegurako planak egiteko orientabidea eta laguntza ematea.*
 - Prestakuntza-planak egitea osasun-arloko eta transexualitatearekin harremana duten beste ezagutza-arlo batzuetako profesionalentzat.**
- i) Gizartean parte hartzea eta jolas- eta kirol-arloan gehiago integratzea bultzatuko dute.*
- j) Tratu txarrak edo presio psikologikoa direla-eta ohiko bizilekutik kanporatuak izan diren edo etxetik borondatez alde egin duten*



transexualei edota transgeneroei laguntzeko neurriak eta jarduerak bultzatuko dituzte. Pertsona, gainera, adingabea bada, gizarte-zerbitzuek beharrezko izapideak egingo dituzte dagokion agintaritzaren aurrean, adingabea hartzeko eta haren zaintza eta jagoletzari buruzko neurriak hartzeko, erantzuleek adingabea abandonatzen dutenean edo hari tratu txarrak ematen dizkiotenean, haren sexu-nortasunarekiko erabateko errespetua eta bizi-baldintza osoak bermatuz.


- k) Enpleguari eta gizarte-zerbitzuei buruzko araudi espezifikoak horri buruz xedatzen duenari kalterik egin gabe, Eusko Jaurlaritzak jarduteko esparru-programa bat prestatuko du, gizartean zailtasunak dituzten edo baztertuta geratzeko arriskuan dauden transexualak gizarteratzeko eta haiei gizarte-arreta emateko.*
- l) Aniztasun funtzionala duten transexualen edo transgeneroen eskubideak babesteko eta erabat errespetatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte. Dibertsitate funtzionala duten pertsonen arreta emateko zentro eta zerbitzuek, publikoek zein pribatuek, transexualak edo transgeneroak ez diskriminatzeko eskubidearen errespetua benetakoa eta eraginkorra izan dadin zainduko dute. Gizarte-zerbitzuek aniztasunaren onarpena sustatuko dute beren zerbitzuen erabiltzaileen artean*
- m) Behar diren neurriak hartuko dituzte, adingabeentzako zentroetan, tutoretzapeko pisuetan, desgaitasuna duten pertsonentzako arreta-zentroetan, hirugarren adinekoen egoitzetan edo pertsona bereziki ahulak hartzen dituen beste edozein baliabidetan, sexuaren arabera bereizitako guneak edo ekipamenduak erabili ahal izan ditzaten transexualek beren sexuakontuan hartzeko.*
- n) Babes berezia emango diete tradizioagatik edo kulturagatik sexu- edo genero-identitateagatik diskriminazio-maila handiagoa izan dezaketen kolektiboetako pertsonen.*
- o) Emakume gisa identitate sexuala duen eta genero-indarkeriaren, sexu-erasoaren edo salerosketaren biktima den pertsona orok eskura izango ditu, berdintasun-baldintzetan, dauden laguntza-baliabideak, bere legezko dokumentazioan islatzen dena gorabehera.*



Zortzigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 6. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

6. artikulua. Aholkularitza- eta laguntza-zerbitzua transexualentzat edo transgeneroentzat, familientzat eta hurbilekoentzat

1. *Euskal Autonomia Erkidegoan, transexualek honako zerbitzu hauek izango dituzte:*
 - a. *Informazio-, orientazio- eta aholkularitza-zerbitzuak, legala barne, transexualei eta transgeneroei, bai eta haien senideei eta hurbilekoei ere, beren izaera transexualari edo transgeneroari berariaz lotutako laguntza-premiei dagokienez.*
 - b. *Talde horren eskubideen defentsa sustatzeko eta kolektibo horrek gizartean, kulturean, lanean eta hezkuntzan jasaten duen diskriminazioaren aurka borrokatzeko zerbitzuak.*
 - c. *Euskal administrazioaren aldetik arreta egokia jasotzea, bai eta pertsona transexualei edo transgeneroei zuzendutako tokiko eta autonomia-erkidegoko administrazioak diruz lagundutako programak garatzen dituzten erakunde edo enpresen aldetik ere.*
2. *Erantzukizun publikoko zerbitzuen kudeaketari buruzko araudiaren esparruan, transexualen edo transgeneroen elkarteen lehentasunezko parte-hartzea sustatuko da zerbitzu horien kudeaketan, eta, hala badagokio, sexu- edo genero-identitatearen arloan jarduten duten erakundeena. Gizon eta emakume transexualek edo transgeneroek zerbitzu horien kudeaketan parte- hartze orekatua izatea sustatuko da.*
3. *Arreta berezia eskainiko zaio langileen prestakuntzari udal-laguntzaren eremuan, besteak beste, diskriminazio-, indarkeria- edo marjinazio kasuak hautemateko lehen instantziako zerbitzuetan.*



Bederatzigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 7. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

7. artikulua. – Administrazio-agiriak.

- 1. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, beren eskumenen esparruan, behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte administrazio-dokumentazioa, lege honetan jasotako arlo guztietan, transexualen edo transgeneroen sexu- eta genero-identitatearekin bat etor dadin.*

Era berean, zerbitzu eta prestazio publikoak eskuratzean, bermatu beharko da transexualak eta transgeneroak beren sexu- edo genero-identitatearen arabera izendatu eta tratatu ahal izango direla.

- 2. Euskal herri-administrazioek, edozein prozeduratan, lege honen onuradunen datuen konfidentzialtasuna errespetatzen dela zaindu behar dute.*
- 3. Erregelamendu bidez ezarriko da transexualek, estatuko administrazioaren mendeko dokumentazioa aldatzen ez den bitartean, administrazio-dokumentazio egokia izateko aukera, prozesu horretan integrazio hobea lortzeko, sufrimendu- edo diskriminazio-egoerak saihestuz.*

Euskal Autonomia Erkidegoan bizi diren transexualen edo transgeneroen kasuan, aurreko paragrafoan aipatutako dokumentazio administratiboa indarrean dagoela ulertuko da jatorrizko herrialdean erregistro-aldaketa egin dezaketen arte.

- 4. Aurreko paragrafoan aipatutako agiriak ematen direnean, eta, zehazki, transexualak bere sentitzen duen sexua islatzen duen nortasun-agiri nazionala ematen denean, Administrazioaren artxibo, datu-base eta gainerako fitxategietatik pertsonaren lehengo identifikazioa edo transexuala dela adierazten duen edozein datu eguneratzeko*



beharrezko administrazio-tresnak baliatuko dituzte, era koordinatuan, Eusko Jaurlaritzak, foru-aldundiek, toki-administrazioek eta Euskal Autonomia Erkidegoko beste edozein erakunde publikok; ezabatuko ez diren erreferentzia bakarrak izango dira Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak arreta ematen dion pertsona horren historial medikorako beharrezkoak direnak.

- 5. Eusko Jaurlaritzak erakunde pribatuen edo Estatuko enpresen fitxategietan behar diren aldaketak egiteko behar den aholkularitza emango du.*

Hamargarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 7.bis artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

7.bis artikulua.- Osasun fisiko eta mentalerako eskubidea babestea.

- 1. Pertsona orok du osasun fisiko eta mentalaz ahalik eta gehien gozatzeko eskubidea, sexu-identitatea dela-eta inolako bereizkeriarik egin gabe.*

- 2. Euskal osasun-sistema publikoak eta finantzaketa publikoarekin itundutako osasun-zerbitzua eskaintzen duten enpresek edo erakundeek kontuan izan behar dituzte transexualen beharrezkoak, osasun-arreta berdintasun-baldintza objektiboetan jasotzeko eskubidea bermatze aldera.*

Hamaikagarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 8. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:


8. artikulua. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren bitartez emandako laguntza



1. *Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak bermatuko du osasun-politikak pertsona transexualak errespetatzen dituela eta ez duela pertsona horien errealitatea patologia gisa tratatzen, ez zuzenean ez zeharka. Sustapen-, prebentzio- eta arreta-zerbitzu eta -programa espezifikok ere jasoko ditu, haiei eta haien familia eta bikoteei aukera emateko osasun-arreta osoa eta eraginkorra izateko eskubideaz gozatzeko, beren beharrian partikularrak aitortu eta kontuan hartuta.*
2. *Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, osasun publikoaren prestazioen esparruan, lege honetan garatutako zerbitzuak, tratamendu hormonalak eta ebakuntza kirurgikoak emango ditu.*
3. *Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren barruan, transexualitatearen arloan espezializatutako unitate bat egongo da, zehazten diren mediku- eta erizaintza-arretako profesionalek osatua.*
4. *Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, odola, hezur-muina, ehunak eta organoak ematearen esparruan, transexualen eskubide eta betebeharren berdintasuna bermatuko du, oinarri zientifiko frogatua duten izaera medikoko bazterketa-irizpideei soilik erreparatuta.*
5. *Osasun Sailak osasun-erakunde publiko eta pribatuen zentroen artean sustatuko du osasun-praktika edo terapia psikologiko zilegi eta errespetuzkoak ezartzea, eta inola ere ez gorrotozkoak, sexu-identitateari dagokionez.*

Hamabigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 9. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

9. artikulua. – Osasun-gida



1. *Erregelamendu bidez ezarriko da transexualen arretarako osasun-gida bat. Gida hori transexualen elkarteekin eta adingabe transexualen familien elkarteekin lankidetzan prestatu eta eguneratuko da lehentasunez, eta transexualek eskura dituzten zerbitzu, jarduera eta tratamendu mediko eta kirurgiko guztiak jaso beharko ditu, lege honetan xedatutakoaren arabera.*

2. Aipatutako osasun-gidak honako ildo hauek jaso beharko ditu gutxienez:
 - a) *Transexualei aitortuko zaie eskubidea dutela beren berriarazko beharrian eta helburuetarako egokienak diren tratamenduak jasotzeko, bai eta beren garapen pertsonala erraztuko duen osasun-erloko arreta integrala jasotzeko ere.*

 - b) *Transexualek bermatuta izango dute eragiten dieten tratamenduen formulazioan parte hartzeko eskubidea, betiere haien autonomia aitortzetik abiatuta, sexu- edo genero-identitateagatiko diskriminaziorik gabe eta errespetu osoz.*

 - c) *Terapia hormonalak, ebakuntza kirurgikoak eta gainerako prozedura osagarriak une egokian eta erabiltzailearen premiei erantzunez lortzen direla bermatuko da.*

3. *Pertsona transexualen osasun-arreta, heldu zein adingabe, nazional nahiz migratzaile, publiko zein pribatu, askatasunez adierazitako sexu-identitatea aitortzeko eskubideak arautuko du. Pertsonak bere garapen fisiko, mental eta sozialean lagungarri zaion osasun-arreta modu osasuntsu eta osoan jaso ahal izango du, batez ere adingabeen kasuan pubertaro-etapan. Eskubide hori ezin izango da mugatu, zaildu edo baztertu, eta arauak beti interpretatu eta aplikatu beharko dira eskubide hori askatasunez eta osorik baliatzearen alde.*

4. *Osasun-arreta ikuspegi despatologizatzailean oinarrituko da, hau da, bizipen transexuala ez dela gaixotasun, nahasmendu edo anomalia bat, baizik eta gizakien sexu-aniztasunaren zati bat. Osasun-erloko profesionalek transexualak bere sexu-identitatea garatzeko behar duen laguntza emango dute.*



5. *Transexualen osasun-arretarako, Euskadiko Osasun Sistemako pertsona guztiei arreta emateko juridikoki ezarritako gehieneko itxaronaldiak errespetatuko dira, kasu bakoitzean arretaren premia edo tratamenduen atzeraezintasuna kontuan hartuta.*
6. *Hormona-tratamendua edo tratamendu plastiko-kirurgikoak aldez aurretik egin izana ezin izango da baldintza gisa jarri bestelako tratamendu osagarriak jasotzeko.*

Hamahirugarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 10. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

10. artikulua. Pertsona transexualen eskubideak

Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 10. artikuluan jasotako eskubideen titularrak dira transexualak, bai eta hura garatzeko araudian jasotako eskubideena ere. Bereziki, ondoko eskubide hauek dituzte ospitale eta erietxe publiko zein pribatuetan:

- a. *Bere sentitzen duten sexuari dagokion sexu- edo genero-identitatearen araberako tratua jasotzea; identitate horri dagozkion geletan edo zentroetan ingresatuak izatea, sexuaren araberako areto desberdinak badaude, eta, azken batean, beren sexu- edo genero-identitateari dagokion tratua jasotzea.*
- b. *Esperientzia nahikoa duten profesionalen arreta jasotzea, nola tratamenduari dagokioen espezialitate zehatzean hala transexualitatearen arloan oro har.*



- c. Eragiten dieten tratamenduen inguruan informazioa jasotzea eta kontsultatuak izatea.*
- d. Zalantzarik badute, bigarren iritzi bat eskatzea beste mediku bati, tratamendua edo interbentzio kirurgikoa egin aurretik, unean-unean indarrean dagoen bigarren iritzirako eskubidearen erregulazioa kontuan hartuta.*
- e. Hurbileko arreta jasotzea, behar ez diren joan-etorriak eta gastuak jasan gabe. Bai eta tratamendurako arreta espezializatuko zentroetara borondatez bideratzeko eskatzeko eskubidea ere.*
- f. Pribatutasuna kontsulta eta elkarrizketa guztietan, eta konfidentzialtasuna bere datu pertsonal administratibo eta kliniko guztien tratamenduan. Horretarako, osasun-laguntzarako identifikazio-dokumentazioa emango dela bermatuko da, pertsonak bere sexu-nortasunaren arabera aukeratutako izenarekin.*
- g. Osasun-historialean orain arte tratamenduari buruz jasotako informazio guztia idatziz jasotzea, beste herrialde batera joanez gero tratamenduari jarraipena emateko.*
- h. Lege honetan bermatutako tratamendu edo esku-hartzeren bat Osakidetzak egin ezin badu, pertsona transexualek eskubidea izango dute tratamendu horiek zerbitzua eskaintzen duten eta kalitate-estandar egokiak eskaintzen dituzten ospitale publiko edo pribatuetara bideratzeko.*

Hamalaugarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 10.bis artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:



1. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, bere eskumenen barruan, bere zerbitzu-zorroan sartuko ditu eta honako zerbitzu, baliabide material eta jarduketa mediko hauek emango dizkie transexualei:

- a. *Tratamendu hormonalak eskuratzea, jarraitutasuna bermatuz.*
- b. *toraxeko maskulinizazioko eta bularra handitzeko ebakuntza kirurgikoak, baita genitalen berreraikuntzako edota erauzketa gonadaleko ebakuntza kirurgikoak ere.*
- c. *Tioplastiako ebakuntzak, hala behar duten emakume transexualentzat.*
- d. *Ezaugarri sexualak aldatzeko ebakuntza kirurgikoak ezin izango dira inoiz esku-hartze estetiko gisa sailkatu.*
- e. *Zakil eta barrabiletako protesi kirurgikoak edo ez-kirurgikoak, horiek gabe jaio diren gizonentzat, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Material ortoprotesikoen Katalogo Orokorrean sartuko dituenak.*
- f. *Kamiseta konpresoreak, bularrak garatu dituzten gizonentzat.*
- g. *Bularretako protesiak, garatu ez dituzten emakumeentzat.*
- h. *Ahotsaren tonua eta tinbrea modulatzeko arreta foniatrikoa.*
- i. *Laguntza psikologiko edo psikiatriko egokia, erabiltzaileak edota senideek hala eskatzen badute. Laguntza hori Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko gainerako erabiltzaileentzat aurreikusitako bera izango da, eta osasun-laguntza espezializatua emateko ez da zertan aldeaz aurretik azterketa psikologikorik edo psikiatrikorik egin*



behar. Arreta hori transexual horren senide eta gertukoentzat ere izango da.

- j. Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak txosten mediko egokiak egiten jarraituko du, Estatuko legeak haien beharra ezartzen duen bitartean, sexuaren izena eta erregistro-aipamena zuzendu ahal izateko, bai eta familia-, hezkuntza-, gizarte- eta lan-ingurunerako beharrezkoak diren txostenak ere, interesdunak hala eskatuz gero.*
- k. Aldizkako jarraipen eta laguntza mediko egokiak, erabiltzaile bakoitzaren egoera pertsonalera egokituak.*

Administrazio-mota desberdinak dituzten tratamendu medikoak egiteko, lehentasuna emango zaio beti eskatzailearentzat egokiena den administrazio-formatuari.

Berariaz debekatuta dago terapia abertsiboak edo transexualaren nortasuna edo borondatea deuseztatzeko beste edozein prozedura erabiltzea, bai eta beste edozein irain, tratu diskriminatzaile, umiliagarri edo duintasun pertsonalaren aurkakoa ere.

2. Adingabe transexualek, gainera, eskubide hauek izango dituzte:

A. Pubertaroaren hasieran hormonak blokeatzeko tratamendua jasotzea. Egoera hori zehazteko, datu objektiboak erabiliko dira, hala nola estradiol- eta testosterona-mailaren neurketa, hazkunde-abiadura edo gonaden heldutasuna, nahi ez diren bigarren mailako sexu-karaktereak garatzea saihesteko.

B. Tratamendu hormonal gurutzatua, nahi diren bigarren mailako ezaugarri sexualak pubertaroko une egokian garatzen laguntzeko, haien gorputz-garapena beren adineko pertsonenarekin bat etor dadin.



3. Artikulu honetan eskaintzen diren zerbitzuak ezagutza zientifikoaren aurrerapenera egokituta eguneratuko dira, eta osasun-arloan eskumena duen saila arduratuko da zerbitzu horiek eguneratzeaz.

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak bermatuko du zerbitzu eta tratamendu horietara bideratzeko bide egokiak, azkarrak eta eraginkorrak daudela, pertsona transexual bakoitzaren eskaerak eta beharrak zehaztu ahal izateko.

Hamabosgarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 10.ter artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

10.ter artikulua.- Transexualitateari Lehen Mailako Arreta emateko Zerbitzuak.

Lehen Mailako Arretako sarearen barruan, pertsona transexualen arreta-eta sustapen-zerbitzuak ezarriko dira, transexualitatearekin lotutako osasun-premiei arreta emateko prozesu osoaren hurbileko jarraipena bermatzeko. Gutxienez Transexualitaterako Lehen Mailako Arreta Zerbitzu bat ezarriko da lurralde historiko bakoitzean.

Erregelamendu bidez garatuko dira edota gida sanitarioan sartuko dira lehen mailako arretako unitate horien funtzio guztiak, baita horien osaera ere. Garapen horren helburua izango da transexualei lege honetan ezarritako zerbitzu, tratamendu eta jarduketara mediko guztiak erraztea, konplexutasun edo espezializazio handienagatik unitate espezializatuak eman behar dituenak izan ezik.

Hamaseigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 10. quater artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:



10. quater. artikulua.- *Transexualitatearen Arretarako Unitate Espezializatua.*

Espezializazio edo konplexutasun nabarmenagatik Lehen Mailako Arreta Zerbitzuek Transexualitateari eman ezin dizkioten zerbitzu edo tratamendu aurreratuetan erreferentzia eta esku-hartze unitatea izango da, bereziki prozedura kirurgiko espezifikoei dagokien guztian.

A) Transexualitaterako Lehen Mailako Arretako Zerbitzuek edo Osakidetzako Lehen Mailako Arretako edozein medikuk bideratu ahal izango dute unitate honetara.

B) Transexualitatea artatzeko unitate espezializatuaren funtzio guztiak erregelamendu bidez garatuko dira edota gida sanitarioan sartuko dira, baita haren osaera ere. Garapen horren helburua izango da transexualei lege honetan ezarritako zerbitzu, esku-hartze, tratamendu eta jarduketa mediko guztiak ematea.

Hamazazpigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 10. quinquies artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

10. quinquies artikulua. – Osasun-arreta transexualen osasun genitalaren esparruan.

Osasun-arloko profesionalek, sexologoek eta transexualen elkarteetako ordezkariak eta haien familiek batera parte hartuta, osasun-gidan protokolo ginekologiko espezifikoa bat garatuko da bulba duten gizonentzat, eta protokolo urologiko espezifikoa bat prostata duten emakumeentzat.



Hemezortzigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 11. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

11. artikulua. Adingabe transexualen arreta

- 1. Eusko Jaurlaritzak transexual adingabeei beren nortasunaren garapen askea eta garapen integrala sustatzeko beharrezko babesa eta arreta bermatuko die, jarduera eraginkorren bidez, haien familia- eta gizarte-integrazioa bermatzeko, administrazioaren programa koordinatuen esparruan.*
- 2. Transexual adingabeek eskubide osoa dute beren egoerari buruzko zerbitzu eta tratamendu medikoak jasotzeko, batez ere terapia hormonalak. Ematen zaien osasun-arreta, adingabeak diren aldetik, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean eta pazientearen autonomia eta informazio eta dokumentazio klinikoaren arloko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Oinarrizko Legean xedatutakoaren arabera egingo da.*
- 3. Transexual adingabeek eskubidea dute entzunak izateko eta erabakiak hartzen parte hartzeko, beren identitate sexualari dagokionez aplikatzen zaien neurri orori dagokionez.*
- 4. Euskal osasun-administrazioaren esku-hartze oro adingabearen interes gorenari arreta emateko irizpidearen arabera arautuko da, eta haren helburua izango da nortasunaren garapen askea bermatzea, haren identitate sexualaren arabera, eta sufrimendu- eta babesgabetasun-egoerak saihestea.*
- 5. Adingabeen fiskaltzak eta Eusko Jaurlaritzak adingabeen babesaren arloan dituzten eskumenei kalterik egin gabe, lege honetan, transexual adingabeen babesa haien legezko ordezkarien bitartez gauzatuko da, edo, indarrean dagoen*



araudiaren arabera, adingabeak babesteko gizarte-zerbitzuen bidez, legezko ordezkariak edo tutoreak sexu-identitatea ukatzeagatik sufrimendu- eta defentsa-gabeziako egoerak daudela ikusten denean.

Hemeretzigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 11.bis artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

11 bis artikulua. – Transexualen ugalketa-eskubideak

1. Ugalketa lagundurako teknikak erabiltzeko aukera bermatuko zaie hala nahi duten eta haurdunaldirako gaitasuna duten pertsona guztiei, haien identitate sexuala edozein izanda ere, bai eta transexualen bikoteei ere.

2. Edozein tratamendu hormonal hasi aurretik, transexualei ehun gonadala eta ugalketa-zelulak izozteko aukera eskainiko zaie, etorkizunean berreskuratzeko, betiere klinikoki bideragarriak badira.

Hogeigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 12. Artikuluari 12.1.bis puntua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

1. bis. Aurreko datuak estatistika-helburuetarako biltzean, konfidentzialtasun-, gardentasun-, espezialitate- eta proportzionaltasun-printzipioak beteko dira. Estatistikako konfidentzialtasunak erabiltzaileen datu pertsonalak inola ere ez zabaltzera behartzen ditu euskal administrazio publikoak.




Hogeita batgarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 13. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

13. artikulua. Profesionalen prestakuntza

Euskal Autonomia Erkidegoko osasun-administrazioak neurri egokiak ezarriko ditu, dagozkion lanbide-sozietateekin, dauden unibertsitateekin eta transexualen eta beraien familien elkarteekin lankidetzan estuan. Eta, hala badagokio, genero-identitatearen eremuan lan egiten duten erakundeekin, langile profesionalek transexualitateari eta emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko prestakuntza espezifikoak jasotzeko duten eskubidea bermatzeko, bai eta transexualek gai horretan esperientzia nahikoa eta frogatua duten profesionalen arreta jasotzeko duten eskubidea bermatzeko ere.

- 1. Osasun-arloan eskumena duen sailak bermatzeko du osasun-langileek transexualitateari buruzko prestakuntza egokia, jarraitua eta eguneratua izatea. Bereziki garrantzitsua da Transexualitatearen Lehen Mailako Arreta Zerbitzuak eta Transexualitatearen Arretarako Unitate Espezializatuak osatzen dituzten profesionalen berariazko prestakuntza sexologikoa. Era berean, pediatriako profesionalen prestakuntza sustatuko da, egoera lehenbailehen identifikatzeko eta haurtzaroan transexualitatea behar bezala laguntzeko.*
- 2. Transexualitatearen arloko osasun-politika espezifikoak aztertzea, ikertzea eta garatzea sustatuko da, kasuan kasuko sozietate profesionalekin, transexualen elkarteekin eta adingabe transexualen familien elkarteekin eta Euskal Herriko unibertsitateekin lankidetzan estuan.*

Hogeita bigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 12. Artikuluari 13 bis puntua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:




13 bis artikulua. – Adostasuna

Kapitulu honetan aurreikusitako tratamenduetarako, aldez aurretik jakinarazitako baimena beharko da, lege-gaitasuna duen pertsona batek emana edo, ordezkaritza-baimena izanez gero, Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duen uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuan aurreikusitako baldintzetan, adingabeei eta tutoretzapeko pertsoneri arreta berezia jarrita.

Adingabeei dagokienez:

- a) Euskadiko osasun-sisteman pertsonen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko Adierazpena onartzen duen uztailaren 21eko 147/2015 Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, 2015eko irailaren 14ko EHAA, 174. zk., adingabeak berak emango du baimena, adingabe emantzipatuen edo 16 urtetik gorakoen kasuan.*
- b) Adingabea ez bada gai intelektualki eta emozionalki tratamendu horien irismena ulertzeko edo 16 urtetik beherakoa bada, adingabearen legezko ordezkariak emango du adostasuna, adingabearen iritzia entzun ondoren, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 9. artikuluan xedatutakoaren arabera.*
- c) Gurasoek edo tutoreek uko egiten badiote transexualitatearekin zerikusia duten tratamenduak baimentzeari edo prebentzioz ezartzen bada garapen hormonalaren inhibizio-tratamendua, salaketa jarri ahal izango da agintaritza judizialaren aurrean, baldin eta jasota badago transexual adingabeari kalte edo sufrimendu larria eragin diezaiokeela. Nolanahi ere, adingabearen interes gorenaren irizpidea hartuko da kontuan beste edozein interes legitimoren aurrean, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan eta, bereziki, haren 2. eta 11.2.1 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera.*



Hogeita hirugarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen IV. kapituluaren izenburua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

IV. KAPITULUA

FAMILIA ARLOKO NEURRIAK

Hogeita laugarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 13ter artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

13.ter artikulua.- Familia-aniztasuna babestea.

1. Lege honek babes juridikoa ematen du pertsona bat edo gehiagok transexualak edota transgeneroak diren izatezko edo zuzenbidezko batasunekiko edozein bereizkeria-motaren aurrean.
2. Transexual edota transgenero bat edo gehiago dituen familia batean bizi diren haur guztien errespetua eta babesa sustatuko da.

Hogeita bosgarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 13. quater artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

13. quater. artikulua. – Adopzioa eta familia-harrera.

1. Indarreko araudiarekin bat etorriz, bermatuko da, adopzio eta familia-harrerako prozesuen egokitasuna baloratzean, sexu-identitateagatiko bereizkeriarik ez egotea.



2. Adingabe transexualen edota transgeneroen kasuan, haien sexu- edo genero-identitatea errespetatuko dela bermatuko da, familia naturalak, harrera-familiak edo gizarte-zerbitzuek hala eskatuta, aurrekoetako batek identitate hori errespetatzen ez badu.

Hogeita seigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 12. Artikuluari 13. quinquies puntua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

13. quinquies artikulua. – Familia barruko indarkeria.

1. Sexu- edo genero-identitatea ez onartzeak eragindako indarkeria familia-indarkeria gisa aitortuko da, eta familia-esparruan edozein kideren sexu- edo genero-identitatearen ondorioz gauzatzen den edozein indarkeria-motaren aurka laguntzeko eta babesteko neurriak hartuko dira. Guraso-ahala edo tutoretza esleituta duten pertsonak adingabe baten sexu- edo genero-identitatea errespetatzeari uko egitea arrisku-egoeratzat hartuko da, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legean aurreikusitako ondorioetarako, salbu eta, inguruabarrak direla-eta, indarkeria edo tratu txar psikiko gisa kalifikatzen bada; kasu horretan, larrigarri gisa agertuko da.
2. Bikotekideetako bat edo gehiagok transexualak diren bikoteetan indarkeriaren biktimei arreta eta laguntza emateko neurriak hartuko dira, jazarpena jasan duen pertsonak jazarlearen aurrean babesa izan dezan, eta, horrela, biktimaren independentzia fisikoa eta ekonomikoa erraztuko da.

Hogeita zazpigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen V. kapituluaren izenburua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:



V. KAPITULUA

LAN ESPARRUAN EZ DISKRIMINATZEA

Hogeita zortzigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 14. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

14. artikulua. Lan-esparruan ez diskriminatzeko printzipioa

Euskadiko herri-administrazioek, haiei atxikitako erakunde publikoek eta haien mendeko erakundeek ziurtatuko dute langileen kontratazioan eta sustapen-politiketan ez dela diskriminaziorik egingo sexu- edo genero-identitatea dela-eta.


Hogeita bederatzigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 15. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

15. artikulua. Ekintza positiboko neurriak enpleguaren arloan

Euskadiko herri-administrazioek ekintza positiboko plan eta neurri egokiak prestatu eta aplikatuko dituzte, jada indarrean dauden enplegu-baliabideak erabilia, persona transexualen edo trasgeneroen kontratazioa eta enplegua sustatzeko.

Hogeita hamargarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 15 bis artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

15.bis artikulua.- Enpleguan ekitatea eta diskriminaziorik eza sustatzeko politikak.



1. Ezin izango da inor diskriminatu bere sexu- edo genero-identitatean oinarritutako lan-merkatura sartzean.

2. Ezein pertsonak ezin izango du inolako diskriminaziorik jasan bere sexu- edo genero-identitateagatik lan-eremuan, ez nagusiengatik, ez lankideengatik, tratamenduari, ordainsariari edo lanbide-kategoriari dagokionez.

3. Sexu- edo genero-identitateagatik, inola ere ezingo dira ukatu laneratzeko edo ahalduntzeko laguntzak, diru-laguntzak edo prestazioak.

Hogeita hamaikagarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 15 ter artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

15.ter artikulua. – Transexuala edota transgeneroa errealitatea enpresaren erantzukizun sozialean.

1. Eusko Jaurlaritzaren enpresen gizarte-erantzukizuneko estrategiak ekitatea eta sexu- eta genero-identitateagatiko diskriminaziorik eza sustatzeko neurriak jasoko ditu.

2. Euskal administrazioek, gizarte-gaietan eskumena duen sailaren bidez, transexualak eta transgeneroak gizarteratzearen arloan eta sexu- eta genero-identitateagatiko ekitatea eta diskriminaziorik eza sustatu eta bermatzearen arloan enpresek egindako jardunbide egokien berri emango dute.

Hogeita hamabigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 15 quater artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:



15. quater artikulua. – Lan-arloko diskriminazioaren aurkako plana.

Lanaren eta funtzio publikoaren arloan eskumena duten sailek erregelamendu bidez garatuko dute lan-arloko diskriminazioaren aurkako plan bat, publikoa eta pribatua, ekitatezko eta diskriminaziorik gabeko neurriak jasoko dituen, bai eta transgeneroen eta transexualen eskubideak zabaltzeko eta haiei buruzko informazioa emateko neurriak ere. Plan hori egiteko, pertsona transexualen eta transgeneroen elkarteek eta sindikatu- eta enpresa-erakunde esanguratsuenek parte hartuko dute.

Hogeita hamahirugarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 15 quinquies artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

15. quinquies artikulua. – Laneko jazarpena.

Eusko Jaurlaritzak laneko jazarpena eta sexu-identitateagatiko diskriminazioa detektatzeko eta kasu horietan esku hartzeko mekanismoak ezarriko ditu. Lantokietan jokabide horiek prebenitzeko, eta, hala badagokio, zuzentzeko eta ezabatzeko neurriak ezarriko dira.

Era berean, lan-ikuskaritzako eta lan-arriskuen prebentzioko arduradunei prestakuntza espezifikoa ematea sustatuko da, sektore publikoan zein pribatuan, pertsona transexualek jasan ditzaketen diskriminazioekin lotutako edukietan eta identitate sexualari buruzko aniztasunaren ezagutzan.

Hogeita hamalagarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 15 sexes artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:



15. sexies. artikulua. – Administrazioko langileak.

Eusko Jaurlaritzak honako hauek bermatuko ditu:

- 1. Erregistro-aldaketara sartu ez diren transexualen edota transgeneroen pribatutasuna mantentzeko, langileei buruzko zerrenda publikoen azalpenean aukeratutako izena jasoko da, eta saihestu egingo da izen hori ohi ez bezala agertzea, betiere pertsonen sexu-identitatea errespetatuz.*
- 2. Arreta, babesa eta laguntza emango zaie, bere jardun-eremuan, sexu-identitateagatik diskriminazioa jasan dezaketen administrazioko eta haren mendeko organismoetako enplegatu publiko guztiei.*

Hogeita hamabosgarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari Kapitulu berri bat GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:


VI. KAPITULUA

TRANSEXUALITATEAREN TRATAMENDUA HEZKUNTZA-SISTEMAN

Hogeita seigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 16. artikulua ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

16. artikulua. Transexualitatearen tratamendua oinarrizko hezkuntzan

Euskadiko Administrazio publikoak bermatuko du hezkuntzako metodo, curriculum eta baliabideek aniztasunarekiko errespetua, sexu- edo genero-identitateari dagokionez ulertu eta errespetatzen laguntzen dutela, ikasleen eta gurasoen eta senitartekoen behar bereziak kontuan izanda.



Hogeita hamazazpigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 17. artikulua KENTZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

Hogeita hamazortzigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 18. artikulua KENTZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

Hogeita hemeretzigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 17. artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

17. artikulua. – Hezkuntza-arloko jarduerak.

- 1. Eusko Jaurlaritzak zainduko du hezkuntza-sistema errespetuzko espazioa izatea, sexu-identitateagatiko presio, eraso edo diskriminaziorik gabekoa, eta printzipio horiek eraginkorrak izateko neurriak garatuko ditu, inplikaturako eragileekin lankidetzan. Gainera, pertsona transexualen edota transgeneroen intimitaterako eskubidea errespetatu eta errespetaraziko du uneoro.*
- 2. Era guztietako diskriminazioak gainditu ahal izateko, zuzendaritza-taldeak bermatuko du ikastetxeko bizitza, funtzionamendua eta bizikidetzaren antolatzen duten dokumentu guztiek erreferentzia egiten dieten pertsonen sexu-identitatea errespetatuko dutela.*
- 3. Zuzendaritza-taldeak arreta eta babesa bermatuko die hezkuntza-komunitateko pertsona transexualei edota transgeneroei, baldin eta diskriminazioa jasan badezakete ikastetxeko instalazioetan edo hezkuntza-ingurunean, fisikoan edo birtualean.*



Jarduera horrek ikastetxearen esku dauden estrategia pedagogiko eta psikopedagogiko guztiak barne hartuko ditu, eta Bizikidetzaren Planean eta Hezkidetzaren Planean diskriminaziorik ez eragiteko ekintzak txertatuko ditu, bai eta prebentzio- eta esku-hartzeko neurriak ere, eskubideen urraketa edo indarkeria fisikoa, ahozkoa edo beste edozein eratako egon daitezkeen kasuei erantzuteko (sare sozialak, mezuak, etab.).

Antolamendu- eta funtzionamendu-erregelamenduak eta, hala badagokio, barne-araubideko erregelamenduak arautuko dute bizikidetzaren aurkakoak edo larriki kaltegarriak diren jokabide desagoki horien katalogazioa, bai eta kasu bakoitzean abiarazi beharreko diziplina-neurriak ere, eskola-komunitateko kideen eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen araudiarekin bat etorritik.

- 4. Hezkuntza-arloko eskumena duen sailak hezkuntza-orientazioko eta orientazio psikopedagogikoko taldeek sexu-identitateari, genero-adierazpenari eta sexu- eta familia-aniztasunari buruzko prestakuntza sexologiko egokia izatea bultzatuko du, ikasleei eta behar duten familiei laguntza psikopedagogikoa eman ahal izateko.*

Berrogeigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 18. artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

18. artikulua. – Eskola-eremuan transexualitateari arreta emateko protokoloa.

- 1. Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetako Zuzendaritzarekin eta administrazio publikoekin batera, pertsona transexualei edo transgeneroei beren errealizazio pertsonala eta soziala ahalbidetuko dien hezkuntza berrantolaketa izango du oinarritzeko helburu. Horretarako, hezkuntza-sistemarekin harremana duen edozein pertsonaren bidezko tratua berrantolatzeko beharrezkoak diren lege-, administrazio- eta bestelako neurri guztiak hartuko dituzte, besteak beste, ikasleak, langileak edo irakasleak, sexu- edo genero-identitateagatik diskriminaziorik gabe.*



2. *Hezkuntza-arloan eskumena duen sailak gizarte-bazterkeria eta indarkeria mota guztien aurkako babes egokia bermatuko die ikasle, langile eta irakasle transexualei, eskola-eremuan jazarpena eta zirikatzea barne. Horretarako, jarduteko protokolo bat txertatuko da ikastetxeko bizikidetza-planaren esparruan, sexu- edo genero-identitateagatiko aurreiritziak eta diskriminazioa dakarten jarrera eta portaera transfobikoen aurrean, edo errealitate hori lehendik dauden gai erlazionatuen protokoloen barruan sartuko da.*
3. *Hezkuntzaren, osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloen arteko koordinazioa ahalbidetuko da, diskriminazio-egoerak edo ikasle, langile eta irakasle transexual edo transgeneroen sexu- edo genero-identitatea erasotzen duten egoerak azkar hautematen eta esku hartzen dela bermatzeko.*
4. *Pertsona transexualak edo transgeneroak dauden ikastetxeetan, ikastetxeetan hezkuntza-komunitateari prestakuntza eta aholkularitza emateko eskumena duen sailak prestakuntza eta aholkularitza egokiak bermatuko ditu, hezkuntza-komunitate osoari zuzendutako prestakuntza-plan integral baten bidez. Plan horretan, irakasleak eta administrazioko eta zerbitzuetako langileak, gurasoen komunitatea eta ikasleak sartuko dira.*

Prestakuntza- eta aholkularitza-lan hori sexologiako profesionalek emango dute, haur eta gazteen transexualitatearen errealitateari buruzko ezagutza espezifikoa izanik, transexualen eta adingabe transexualen familien elkarteekin lankidetzan.

Eskola-eremuko lanketa hori osasun- eta gizarte-arloetatik egiten ari diren gainerako laguntza-jarduerekin koordinatuko da; eremu horietako guztietako profesionalek lankidetzan jardun ahal izango dute eta elkarri lagundu ahal izango diote beren jardueretan, betiere transexualen edo transgeneroen intimitatea errespetatuz eta jarduketa horietan erabilitako datuak babesteko baimen-baldintzak betez.



Bereziki, ikastetxeentzako protokoloaren barruan, ikasle transexualei edo transgeneroei eta haien familieei laguntzeko, neurri egokiak hartuko dira, helburu hauekin:

- a) *Sexu- eta genero-identitatearekiko errespetua bermatzea, bai eta identitate hori ikusarazi ala ez erabakitzeko eskubidea ere. Pertsona transexualak edo transgeneroak bere dokumentazioan agertzen denaz bestelako izen bat erabiltzea erabakitzen badu, ikastetxean egiten diren irakaskuntzako eta eskolaz kanpoko jardura guztietan izen hori erabiltzeko eskubidea errespetatuko da, eta ikastetxeko irakasleek eta administrazio eta zerbitzuetako langileek nahiz gainerako ikasleek izen hori erabili beharko dute.*

Jendaurreko dokumentazio administratiboa eta ikasleei, irakasleei eta ikastetxeko gainerako langileei zuzendutakoa egokituko da, besteak beste, klase-zerrendak, kalifikazioen informazio-buletina, ikasle-txartela, tutoretzen ordutegiak edo hauteskunde sindikaletarako hauteskunde-eroldak barne. Dokumentazio horretan aukeratutako izena agertuko da, eta saihestu egingo da izen hori ikastetxeko gainerako ikasle, irakasle edo langileen izenak ez agertzea. Era berean, hautatutako ikasleen, irakasleen eta ikastetxeko gainerako langileen izena eta sexu-identitatea jasoko dira Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren datu-baseetan eta sistema informatikoan, eskola-informazioa kudeatzeko.

Erregistroko dokumentazioa zuzendu denean, titulazioa emateko izapideak izen eta sexu horrekin bat etorri egingo dira, historia akademikoan jasotako izena eta sexua edozein direla ere.

- b) *Ikasle, langile eta irakasle transexualen edo transgeneroen irudi fisikoa errespetatzea eta errespetaraztea, bai eta janzkera askatasunez aukeratzea ere. Zentroan derrigorrezkoa bada sexuen arabera bereizitako uniforme bat janztea, adierazitako sexu-identitatearekin bat datorrena janzteko eskubidea aitortuko da.*
- c) *Ikasle, langile eta irakasle transexualei beren sexuari dagozkion instalazioetarako sarbidea eta erabilera bermatzea, baldin eta*



ikastetxean sexuaren arabera bereizitako instalazioak badaude, hala nola komunak eta aldagelak.

- d) Sexuaren arabera bereizitako jarduerak eginez gero, pertsona bakoitzaren sexu-identitatea errespetatzea.*
- e) Neurri horiek hartzeko ez da inolako txostenik erakutsi beharko.*
- f) Une oro errespetatu eta errespetaraziko da pertsona transexualen intimitaterako eskubidea, azpiegiturek intimitate hori ahalbidetzen duten elementuak izan ditzaten erraztuz.*
- g) Zuzendaritzak, emantzipatu gabeko adingabearen legezko ordezkariaren bat aurreko neurriak hartzearen aurka badago, dagokion oinarritzko gizarte-zerbitzuari jakinaraztea adingabe transexualaren edota transgeneroaren kasuari heltzeko planteamenduan bat ez datorrela, eta, nolana ere, adingabearen interes gorena gailentzea beste edozein interes legitimoren aurrean, Babes Juridikoari buruzko urtarilaren 1eko 1/1996 Lege Organikoan aurreikusitakoarekin bat etorriz.*

Berrogeita batgarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 19. artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

19. artikulua. – Hezkuntzako planak eta edukiak.

- 1. Hezkuntza-administrazioak sexu-identitatea edota genero-identitatea hezkuntza-eremu guztietan errespetatua izan dadin zaindu behar du, eta hezkuntza-metodologiak, curriculumek eta -baliabideek sexu- edo genero-identitateari dagokionez aniztasunarekiko ulermena eta errespetua areagotzeko balio dutela bermatuko du.*



Ikastetxe bakoitzean nahitaezkoa izango da bizikidetza-plan bat, zeinak orientatuko baititu sexu-identitatean oinarritutako pertsonen errespetuaren eta diskriminaziorik ezaren kultura sustatzeko ikasturte bakoitzean garatuko diren harrera-protokoloak, tutoretza-ekintzako planak, hezkuntza-orientazioko planak eta hezkidetza-planak.

Beharrezko neurriak hartuko dira sexu-identitatean oinarritutako errekonozimendurik eza, diskriminazioa edo indarkeria fisikoa edo psikologikoa dakarten hezkuntza-edukiak eraldatzeko, eta, horrela, inklusiorako eta aniztasunerako eskola bat bermatuko da, bai irakaskuntza publikoan, bai pribatuan. Erabilitako hezkuntza-materialaren edukiek, edozein formatutan, eta erabiltzen den hizkuntzak sexu-identitaterako eskubidea errespetatzea eta babestea sustatuko dute.

- 2. Orientazioarekin eta tutoretzarekin lotutako hezkuntza-edukien barruan, bermatu egingo da euskal ikasleek pertsona transexualen edo transgeneroen kolektiboarekiko bizikidetza-, errespetu- eta ekitate-balioak sustatuko dituen prestakuntza jasotzea, familia-eredu desberdinetara hurbiltzea eta sexu-identitatearen ondoriozko errealitate desberdinak azaltzea.*

Berrogeita bigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 20. artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

20. artikulua. – Prestakuntza- eta hedapen-ekintzak.

- 1. Irakasleen eta ikastetxeetan lan egiten duten gainerako langileen prestakuntzan transexualitatearen edota transgeneroen errealitatea sartzan dela bermatuko da, sexu- eta genero-aniztasuneko egitate gisa ulertzeko, eta hura detektatzeko eta laguntzeko tresnak ahalbidetuz.*



2. *Hezkuntza-eskumenak dituen sailak pertsona transexualen edo transgeneroen errealitatea txertatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko ikasleen prestakuntzako zeharkako edukietan, bidezko den gaietan. Irakaskuntza-maila guztietan eta beste prestakuntza-eremu batzuetan dauden informazio-, dibulgazio- eta prestakuntza-edukiak berrikusiko ditu, eta, horretarako, entzunaldia emango die transexualen edota transgeneroen elkarteei eta adingabe transexualen familiei.*

Berrogeita hirugarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 21. artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

21. artikulua. – Unibertsitate Hezkuntza

1. *Euskadin kokatutako unibertsitateek pertsona transexualen edo transgeneroen eskubideak bermatu beharko dituzte, eta, horretarako, edozein ikastetxek dituen neurri berberak ezarri beharko dituzte, hezkuntza-arloari buruzko aurreko artikuluetan zehazten den bezala.*
2. *Helburu horrekin, transexualen edo transgeneroen elkarteekin lankidetzan, sexu-identitateagatik ez baztertzeko protokoloa egingo da.*
3. *Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako unibertsitateek beren gradu eta masterretako ikasketa-planetan eduki espezifikoak eta egokiak sartuko dituzte, transexualitateari heltzeko behar den prestakuntza bermatzeko. Prestakuntza hori gradu edo master bakoitzaren beharren arabera aplikatuko da.*

Berrogeita laugarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari beste kapitulu bat, VII.a, GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:



VII. KAPITULUA

KULTURAREN, AISIALDIAREN ETA KIROLAREN ARLOKO NEURRIAK

Berrogeita bosgarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari Artikulu berri bat GEHITZEN zaio, 22. artikulua, eta honela geratzen da idatzita:

22. artikulua. – Kultura inklusiboa sustatzea

Eusko Jaurlaritzaren liburutegi guztiek gai transexualei buruzko funts bibliografikoa izan beharko dute. Bibliografia-funts hori herritar guztiek eskuratu ahal izango dute, eta horren jarraipena eta eguneratzea egingo da.

Txartel edo identifikazio-agiri bat behar duten liburutegi eta kultura-zentro publiko guztietan, agiri horrek pertsona transexualen izena eta sexua jasoko ditu, Erregistro Zibilean horiek zuzendu dituzten ala ez kontuan hartu gabe.

Berrogeita seigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 23. artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

23. artikulua. – Kirola, aisialdia eta denbora libre

- 1. Eusko Jaurlaritzak sustatu eta zainduko du kirol-jardueran, jarduera fisikoan eta aisialdiko eta denbora libreko jardueretan parte hartzea ekitatearen arabera, sexu-identitateagatiko diskriminaziorik gabe. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek antolatzen dituzten kirol-ekitaldi eta -lehiaketetan, pertsona transexualak hartuko dira kontuan, baldin eta beren sexu-identitatea kontuan hartzen badute ondorio guztietarako. Jarduera horietan identifikazio agiri edo karnet*



bat behar izanez gero, edozein kirol federazioren txartela barne, berdin jokatuko da.

- 2. Kirol-, kultura-, aisialdi- eta astialdi-jarduerak kudeatzen edo ematen dituzten profesionalak hautatutako izena erabiliko dute parte-hartzaile transexualentzat. Jarduera guztietan izen hori erabiltzeko eskubidea errespetatuko da. Parte hartzen duten transexualen irudia errespetatu eta errespetaraziko da. Sexuaren arabera bereizitako jarduerak egiten badira, sexu-identitatea hartuko da kontuan. Kirol-, kultura-, aisialdi- eta astialdi-jarduerak sexuaren arabera bereizita egiteko instalazioak badaude, hala nola komunak eta aldagelak, parte-hartzaile transexualei bermatuko zaie beren sexuari dagozkion instalazioetarako sarbidea eta erabilera.*
- 3. Neurriak hartuko dira kirol-didaktikako, aisialdiko eta denbora libreko profesionalen prestakuntza egokia bermatzeko, transexualitatearen errealitatea eta kolektiboaren errespetua eta babesa txertatuz sexu-identitateagatiko edozein diskriminazioren aurrean. Horretarako, kirolaren, aisialdiaren eta denbora librearen kudeaketaren eta gazteriaren arloan ordezkartza duten erakunde publiko edo pribatuekin beharrezko harremana ezarriko da.*
- 4. Kirol inklusiboa eta segregatu gabea sustatuko da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan egiten diren kirol-ekitaldietan adierazpen transfobiko oro desagerraraziko da.*

Berrogeita zazpigarren artikulua. – Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari VIII. kapitulu berri bat GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

VIII. KAPITULUA

SEGURTASUNAREN, JUSTIZIAREN ETA LARRIALDIEN ARLOKO NEURRIAK



Berrogeita zortzigarren artikulua.- Ttransexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legeari 24. artikulua GEHITZEN zaio, eta honela geratzen da idatzita:

24. artikulua. – Justizia eta ordena publikoa.

- 1. Eusko Jaurlaritzak, bere eskumenen esparruan, gorroto-delituen biktima diren transexualei laguntzeko beharrezko neurriak hartzen direla zainduko du Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Autonomikoan eta Udaltzaingoetan.*
- 2. Eusko Jaurlaritzak, bere eskumenen esparruan, interesdun gisa jardungo du zigor-arloko auzietan, baldin eta, duten garrantzi bereziagatik eta, bereziki, gorroto-delituen arloan, justifikatzen badute pertsona transexualen interes kolektiboak eta interesak defendatzeko pertsona izatea.*
- 3. Pertsona transexualek polizia-bulegoetan, bulego judizialean eta askatasunaz gabetzeko beste esparru batzuetan tratu eta egonaldi egokia izango dutela bermatzeko neurri egokiak ezartzea, bai eta pertsonaren sexu-identitatea errespetatzen duten identifikazio- eta miaketa-arauak ezartzea ere.*
- 4. Atxilotuei eta preso transexualei, bai polizia-agintaritzaren aldetik, bai espetxe-agintaritzaren aldetik, jarraitzen ari diren edozein tratamendu mediko edo hormonal jarraitzeko aukera eta erraztasunak ematea, bai eta tratamendu horri ekitea ere, hala eskatzen badute.*
- 5. Segurtasun- eta justizia-langileen hasierako eta etengabeko prestakuntzan, hala nola udaltzaingoetan, polizia autonomikoan, justizia-administrazioko pertsonalean eta espetxe-pertsonalean, besteak beste, sexu-identitateari buruzko aniztasuna eta transexualen babeserako araudi zibila, administratiboa eta penala lantzen direla bermatzea.*



Berrogeita bederatzigarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen lehenengo xedapen gehigarria ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

Lehenengo xedapen gehigarria.- osasun-gida

Gehienez ere sei hilabeteko epean, adituen batzorde bat jarriko da martxan, transexualen elkarteekin eta adingabe transexualen familiekin lankidetzan, transexualen arretarako osasun-gida eratzeko, lege honen 9.1 artikulua xedatzen duen moduan.

Berrogeita hamargarren artikulua.- Transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko ekainaren 28ko 14/2012 Legearen lehenengo xedapen gehigarria ALDATZEN da, eta honela geratzen da idatzita:

Bigarren Xedapen Gehigarria. – Transexualitateari lehen mailako arreta emateko zerbitzuak eta transexualitateari arreta emateko unitate espezializatua

Lege hau indarrean sartu eta gehienez ere sei hilabeteko epean jarriko dira martxan transexualitatearako lehen mailako arretako zerbitzuak eta transexualitatea artatzeko unitate espezializatua, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren barruan, lege honen 8.3, 10.ter eta 10. quater artikuluetan zehazten den bezala.